

Gomendatutako liburua:

-Penrose, Roland. "80 años de surrealismo: 1900-1981". Polígrafa. Barcelona. 1981.

SURREALISMOA

Hitz hau Apollinaire-k asmatu zuen eta gerora Andre Breton-ek onartu zuen mugimendua izendatzeko. Pintura surrealista bi errealitateen, barnekoaren eta kanpokoaren adierazpide bateratzaile bilakatu zen.

Pintura eta eskultura ezezik, poesia, prosa, zinema, antzerkia, filosofia, psikoanalisi, politika, moda, propaganda eta ohiturak ere hartu zituen. Ametsen eta ariketa automatikoen bitartez gizakiaren askatasuna eta bere bizirikoa izatera osoa garatu nahi zuten. Andre Breton mugimenduaren sortzailea izan zen eta honek automatismo psikikoak bultzatu zituen bai hitzetan eta baita irudietan ere.

Freud-i esker surrealisten gizakiaren senik gabeko asmoetan jarri zuten arreta nagusia. Gerora, zeinuak eta sinboloak ikasi zituzten, batik bat erotismoarekin erlazioa zutenak. Ezaugarri hura Dali-ren, Dominguez-en eta Masson-en lanetan eman zen gehienbat. Pinturak irudimenaren mugagabetasuna eta neurrik gabeko askatasuna azaldu nahi zituen. Batzuetan ohiko teknika piktorikoak erabili zituzten, baina gaien aldetik pintura tradizionala bazterrean geratu zen.

Surrealismoa dadaismoan gertatutako hausturatik eratorri zen. 1921. ean, Andre Breton-ek bere lehen obra surrealista eman zuen ezagutzera: "Les Champs magnétiques". 1922-24 Littérature aldizkariaren garaia zen. Eta 1924.ean talde surrealisten sorrera eta lehen manifestua aurkitu zen. Poesian ere oso lan garrantzitsuak sortu ziren artista surrealistentzat, adibidez, Baudelaire-ren eta Rimbaud-en poema-liburuak. Gero Andre Breton-ek, Louis Aragon-ek eta Philippe Soupault-ek Apollinaire-ren lanarekin jarraitu zuten eta Andre Breton-i esker surrealismo mugimendua hasi zen. Surrealismoaren Manifestuan, Breton-ek hurrengo hau adierazi zuen: "Automatismo psíquico puro mediante el cual se propone expresar, sea verbalmente, sea por escrito, sea por cualquier otro medio, el funcionamiento real del pensamiento. Dictado del pensamiento, en ausencia de cualquier control ejercido por la razón, al margen de toda preocupación estética o moral."

Surrealismoak aurreko aroen arte fantastikoarekiko lotura zuen eta pintore asko protosurrealistentzat hartu zituzten. XV. eta XVI. mendeko artista batzuen lanak ikasi zituzten: Arcimboldo, El Bosco, Brueghel, Durero, Giovanni di Paolo, Holbein, Leonardo da Vinci. Gero XVII. , XVIII.eta XIX.mendeetako margolari batzuen lanekin erlazionatu ziren: Hogarth, Piranesi, Blake, Busch, Carrol, Fussli, Goya, Ensor, Redon, Gustave Moreau, Henri Julien Rousseau.

Errealitatearen ulermolde fantastikora jotzen zuen panorama zabal hori oso kokagune artistiko garrantzitsua izan zen Chagall, Chirico, Duchamp, Kandisky, Klee, Picasso bezalako pintatzaileentzat. Mugimendua berehala bilakatu zen nazioarteko korronea. 1930. etik 1940.rarte gertakari internazionalista moduan garatu zen eta herrialde guztietatik zehar artista surrealistentzat agertu ziren. Esaterako, Belgikan: Mesens, Goemans, Magritte, Delvaux, André Sauris; Polonian: Hans Bellmer eta Richard Oelze; Suitzan: Giacometti, Seligmann; Italian: Giorgio de Chirico; Espainian: Miró, Picasso,

Dalí, Domínguez; Alemanian: Meret Oppenheim; Kuban: Wilfredo Lam; Ingalaterran: Penrose eta Henry Moore.

1925. ean ireki zen Pariseko lehenengo erakusketa surrealista. Ondoren, mundu erakusketak etorri ziren kronologia honi jarraituz: 1935.ean Kopenageko, Tenerifeko eta Pragako erakusketak; 1936.ean Londresekoa eta beste batzuk hurrengo urteetan herrialde desberdinetan. Artista surrealistek hurreke egindako artean islatu zuten interesa. Gero teknika desberdinak erabili zituzten, adibidez, paper hautsiak, dekalkomaniak, collageak eta frottageak (1925.ean Max Ernst-ek erabilitako prozedura izan zen: objektu baten gainaldean jarritako paper batean lapitz bat edo ikatz ziri bat igurtzitzean datza. Horrela, neurri handi batean zorizko emaitza lortzen zen); Man Ray-en rayogramak eta fotogramak.

Erregistro zabalaren barruan, magia, alkimiaren ikerketa eta esoterismoa, Tarotak, erotismoa, onirismoa eta ezuste objektiboa erabili zituzten. Orokorrean automatismo psikiko garbia eta zoria erabili zituzten. Azken hori surrealisten metodoen artean funtsezko ezaugarria izan zen: pentsatu gabe zegoena, zoriaren eta halabeharraren barruko indarra, nahiak eta ametsak azaleratzen ziren. Surrealismoan, gure gizarteaz azaldutako ohiturako ordena eta oreka menderatzea proposatu zuten eta baita ezustekoa, harrigarritasuna eta komentziosko hari narratiboaz kanpo zegoena indartzea ere. Handik eratorri zen zoria edo halabeharraren ideia.

Zineman ere surrealismoaren sorkuntzak oso inportanteak izan ziren. Hurrengo filmeak topa ditzakegu: René Clair-ren “Entrée” (1924), Man Ray-en “Itsas zaharra” (1928), Dulac-en “Maskorra eta clergyman-a” eta Luis Buñuel-en “Txakur andaluz bat” eta “Urrezko aroa”. Filme hauetan guztietan, izaeraren barneko mundua zinemaren bidez azaldu nahi izan zuten, ametsari forma emanez, irudia bihurtuz.

Surrealismoaren eraginak oso garbi agertu dira arte mota guztietan. Adibidez, zineman Alfred Hitchcock-en “Edwards Doktoarearen etxea” pelikula egiteko Dalí-k ideia batzuk eman zizkion zuzendariari. Surrealismoaren eragina beste pelikula batean ere garbi antzeman daiteke Resnais-en “Ihaz Marienbad-en”. Esaterako, esaldi surrealista ospetsu bat “debekatuta dago debekatzea” (gastelanieraz “se prohibe prohibir” Pariseko 68.ko maiatzan slogan bat bezala erabili zen).

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

RENE MAGRITTE

- “Eguraldi mehatzailea” (1931-1932)
- “Haizeen ahotsa” (1931)
- “Taldeko asmakuntza” (1935)
- “Barruko begirada” (1942)
- “Botila pintatua” (data barik)

SALVADOR DALI

- “Asto usteldua” (1928)
- “Joku iluna” (1929)

- “Paul Eluard-en erretratua” (1929)
- “Masturbatzaile handia” (1929)
- “Guillermo Tell-en enigma” (1929)
- “Buruhezur atmosferikoak sodomia eginez piano bati” (1934)
- “Emakumearen bustoa” (1933)
- “Txaketa afrodisiakoak” (1936)
- “Jirafa sutan” (1936-1937)
- “Gudaren aurpegia” (1940-1941)
- “Amerikako Poesia” (1943)

MAX ERNST

- “Santa Cecilia (piano ikustezina)” (1923)
- “Ubu Imperator” (1923)
- “Bizitzeko poztasuna” (1936)
- “Barbaroak Mendebaldera hurbilduz” (1936-1937)
- “Emaztegaiaren jantzia” (1940)
- “Marlene” (1940-1941)
- “Anti Aita Santua” (1941-1942)

OSCAR DOMINGUEZ

- “Josteko makina elektro-sexuala” (1935)
- “Guanchesen kobazuloa” (1935)
- “Zezenaren burua” (1942)
- “Elefanteen hilerria” (1938)

JEAN edo HANS ARP

- “Kaspar” (1930)
- “Buru maskorra” (1933)

ALBERTO GIACOMETTI

- “Mahai surrealista” (1933)